

**IRAKURLE TALDE FEMINISTAK:
HEZKUNTZA EZ-ARAUTUAREN IRAKASPENAK**

Literatura ulertzeko moduak

Joseba Sarrionandiaren ustez, zer da irakurtzea?

IRAKURTZEA

«Munduko gauzak irakurtzen ditugu, letrak irakurtzen hasi baino lehenago» (P. Freire)
«Irakurtzea arriskatzea da. Garena eta duguna babesik gabe uztea» (Georg Steiner)
Idazten dudalarik, idatzi egiten naiz. Irakurtzen duzularik irakurri egiten zara».

Irakurketa-motak

Narrazioak laburrak izateak ez du esanahi interpretatzen errazagoak direnik, hainbat hutsune dituztelako osatzeko. Testu literario bat interpretatzen dugunean, testuak xehetasun eta datu batzuk eskaintzen dizkigu, baina, izan badira hutsune asko, irakurleok bete behar ditugunak. **Hutsune horien aurrean irakurleok hainbat bide** har ditzakegu:

- Hutsune horiek **bete gabe utzi** (eta interpretazioa testuak eskaintako xehetasun horien gainean eraiki).
- Hutsune horiek **joera nagusien arabera osatu** (adibidez: testuak maitale-bikote bat irudika dezake, baina, bikote horren inguruko ezaugarriak edo xehetasunik ez eman; eta maitale-bikote hori emakume-gizon modura irudikatzen dugunean –joera nagusien bidetik-).
- Hutsunea **modu berritzailean edo hainbat modutara osatu** (adibidez: testuak maitale-bikote bat irudika dezake, baina, bikote horren inguruko ezaugarriak edo xehetasunik ez eman; eta maitale-bikote hori gorpuztean hainbat aukera daudela adieraztea interpretazioa egitean).

Irakurketa-motak:

Hutsuneak betetzeko harturiko bideen arabera, honako irakurketa-mota hauek daude:

- **Irakurketa esplizitua:** interpretazioa egiterakoan testu literarioaren beraren hitzetan zuzenean adierazitako ideien bat hartu da (hutsuneak bete gabe).
- **Irakurketa inplizitua:** interpretazioa egiterakoan testu literarioak zeharka adierazitako ideien bat garatu da (hutsuneren bat bete egiten da, baina, joera kultural edo sozial nagusien bidetik).
- **Irakurketa sortzailea:** testu literarioak hainbat datu ematen ditu, baina, bada ere isildu egiten duen informazio ugari, eta irakurleok askotan isilune horiek bete egiten ditugu interpretazio-ariketa zenbaiten bitartez (hutsunea modu sortzailean edo berritzailean betetzen denean).
- **Irakurketa kontraesankorra:** testu literarioaren ezaugarriren batekin kontraesana sortzen duen interpretazioa da; eta beraz, ez da interpretazio egokia, testuan zehazturiko datuak ez baititu kontuan hartu.

Irakurbide feministak: hiru kokapen

Irakurri testu literarioak lantzeko galdera/aukera zenbait:

TESTUAREN ZENTZUAK

- Narrazioaren ARGUMENTUA (gertaera-katea edo egoera-katea) eta GAIA (helarazi nahi duen mezua) idatzi // Poemaren egoera, emozioa edo gertaera idatzi.
- Literatur testuaren berri emateko argazki bat edo kantu bat hautatu.

PROTAGONISTAREN GORPUZTEAK

- Protagonista(k) nola imajinatu d(it)uzuen partekatzeo, irudikatze horretara hurbiltzen den argazki bat bilatu.
- Protagonistarekin identifikatu al zara?

Irakurketa literario feminista (I): hutsuneak bete

GAUA ETSAI

Biharamunerako jantziak aulkian prest utzi eta iratzargailua goizeko seietan ipini zuen. Argia itzali aurretik, mesanotxetik ateratako errebolberra burkoaren gainean jarri eta “bihar arte!” etsi batez agurtu zuen iratzargailua.

ERREPIDERA ATERA NINTZEN

Urduri igaro nuen egun osoa, hura zelako eguna. Egund hartan itzuliko zinela etxera. Errepidera atera nintzen zure bila. Gizon arrotzen automobilen faroek argitzen zuten nire bularra. Sargoriaren ilunabarra gainean erortzeaz zegoenean igaro zinen aurretik. Gelditu gabe, bihotz puskatuak utzitako hautsa harrotuz. Hauts hori begietan sartu zitzaidan, eta ezin izan zintudan urruntzen ikusi. Ez nuen ikusi nahi izan.

ARTILEA

Etxeko kalefakzioa ez dabil ondo. Baina ez dute elkarren beroa bilatzen. Temperatura zero azpitik dago beraien artean ere. Bestea ferekatu beharrean, bakoitzak soinean daraman artilezko txaketa laztantzen du. Artilezko harresiak eraiki dituzte beren artean. Artilezko artilleria batek bermatzen ditu mugak, gertatu ez den gerra baten bake honetan. Hamabigarren urteurrena ospatzeko, teledendako batamanta bana oparitu diote elkarri. Produktu ona da, goxotasuna ematen du. Eta ez dute konpartitu beharrik.

MENDEKU HEMORRAGIA

Erosketa guztiak zeneramatzen poltsa hartatik pistola hartu zenuenean, ez zenuen pentsatu. Ez zitzaizun burutik pasa ere gai izango zinela. Egingo zenuela. Irribarre hori ikusi zenuenean. Haren hitzak entzun zenituenean. Goxo. Leun. Mantso. Barkamena eskatzen zizuten begi horiek. Ahaztu zenezan, ahotsak. Konponbideren bat egongo zela. Baina mendekuak zure zainak hautsi zituen, mendeku hemorragia bat izan zenuen gorputz osoan, eta mendekuaren korronteak bultzatu zuen zure hatza. Zure bala. Desastre hura.

Irakurketa literario feminista (II): irakurle(ar)en gorpuztasuna(k)

ODOLETAN 1

«Odoletan nago» zikindu dut atzamarrekin ispiluan.
Odoletan nago baina ez naiz emeago sentitzen.
Kalez beterik daude usainak,
kea ari du harripetik.
Sutu egin dira teilatuak,
masail gorritu bat da zerua albotik pasatzean,
orratzetatik tantaka ari dira segundo odolkarak,
lotsaturik erori dira hostoak ukitu orduko.
Odoletan dago oinez naraman lurra ere,
sortu zuen sabeletik isuriz doa
barrunbeek onartu nahi ez didaten jarria.
Eta ez dakit zergatik ukatu behar dudan
naizena: emakume bat odoletan.

Leire Bilbao, *Ezkatak*, Susa, 2006.

ODOLETAN 2

Odolez zikindu ditut atzamar puntak
eta ahora eraman zalantzati.
Nire gorputzak nahi ez duen odol honek
ez du zapore mikatzik.
Min egiten didate titiburuek
ezpain eske baleude bezala.
Ez ditut zureak gura,
ez ditut inorenak gura,
niretzat ondo gordeak dauzkat.
Taupadaka daukat barrua, erantzun eske,
eta esku bat pausatu dut bularrean.
Galdetu didazu zergatik batzuetan zuri baino
hobeto ulertzen diodan lehoi eme bati.
Orain badakizu bularrak taupadaka ditudanean
zergatik ez dizkizudan uzten ukitzeko,
zergatik gordetzen ditudan neuretzako.
Leire Bilbao, *Ezkatak*, Susa, 2006.

5.- GARAI HEROIKOAK

ODA EGIN NAHI DIZUT, zakila,
hainbeste urte gogor eskertzeko.
Mila alditan hasi badut ere
ez dakit nola burutan atera.
Bertan, hau dakit, barkatuko dizut
ezkerreko joera, hain nire;
belaunaldi zerari egotziko
(hogeita sei urte dut eta duzu)
zure entusiasmo ustekabeak
eta noiznahiko ezinegona.
Ez dakit, txiki, zer gehiago idatz.
Hustu naiz. Ruperren aipamen hura
paratuko dut. Gizonak behar du
zalantza. Heldulekuren bat ere.

Angel Erro, *Gorputzeko humoreak*, Alberdania, 2006.

Irakurketa literario feminista (III): genero-irudikatzeak

GOSARI MORTALA (I)

Neskak egunero prestatzen zion gosaria mutilari. Egunero, behin ere hutsik egin gabe, ttantta bat zianurorekin.

GOSARI MORTALA (II)

Mutilak neskari ez zion sekula gosaririk prestatu.
Ana Urkiza, *Bekatuak*, 2005, Elkar

BELAUNIKO

Sartu da eguzkia eta kalera zoaz. Guapa aterako zara. Hala erabaki duzu horixe sinetsi nahi duzunez. “La otra estaba más buena pero tenía novio”. Zeure gorputzari begira ez duzu ilea baizik ikusten. Gaur guapa aterako zarela zin egin diozu zeure buruari, berrero, eta depilatu egingo zara; bai horixe. “Si tiene así los sobacos imagínate el coño”. Soineko berria jantzi duzu. Alaia da, eta estu-estua, ondo geratzen zaizu; hori esan zizun dendariak ere eta ziurrenik,

benetan pentsatzen zuen. Irribarre egin duzu ispiluaren aurrean. Berriro, eta berriro. Gaur ez zara lotsatuko. Gaur ez zara beldurtuko. “Ikusi al duk ipurdi hori? Gustura jarriko huke lau hankatan e!”.

Zerbeza asko edan duzu eta irribarre irristatu egiten zaizu, ez du oso irribarre ematen. Marra zuri-zuri batzuk ere joan dira tartean. Ez dakizu oso ondo gauzak nondik ateratzen diren. Besarkada bat eskertuko zenuke. Guapa sentitzen zara hala esan dizulako belarri ondoko hats batek, poltsiko batek. Ez duzu indar gehiegi dagoeneko etxean azkeneko zerbeza atera dizunean eta lokartu egin zara moketan belaunikatu zaituenean. Belauniko esnatu zara, minutu gutxira, zakil arrotz hark eztarriko zintzarria zapaldu dizunean, makarroizko goragaleaz. Hurrengoan zerbeza gutxiago edatea erabaki duzu.

Uxue Apaolaza, *Umeek gezurra esaten dutenetik*, Erein, 2005.

BANAKETAK.

Serio zeuden gurasoak bi ahizpei begira. Ez zuen gaizki egindako ezer gogoratzen. Arratsaldean parkean ibili zen, beti bezala, auzoko lagunekin. Ez zen ezer berezirik gertatu. Ez haserrerik. Ez istripurik.

“Zer egin ote duzu oraingoan”, esan zion Martari belarrira.

“Zer egin ote duzu zuk, nik ez dut ezer egin”.

“Zuen aitak eta biok banatu egin behar dugu”.

“Elkar maitatzeari utzi diogu eta hoberena dela pentsatu dugu”.

“Baina zuek maite zaituztegu, asko maite zaituztegu”.

Isilunea.

“Nik ez dut Marta maite, banatu naiteke ni ere?”.

“Bai, guk ere banatu egin nahi dugu”.

Isilune ozenago bat.

Ana Malagon, *Lasai, ez da ezer gertatzen* (Elkar, 2014)

ZIRKULU LITERARIOAK: FEMINISMOTIK BIRKOKATU

Moderatzaileak txandak ematen eta errespetarazten ditu, eta, batzuetan, galdera-zerrenda bat eramaten du prest, eztabaida dinamizatzeko. Haren lana da taldekideak hizketan eta euren zereginak betetzen ari direla ziurtatzea. **Birkokatze feminista**: bi alderditan jarri behar du arreta, alde batetik, txandetan genero-ikuspegitik orekari eusten zaiola egiaztatzea, eta beste alde batetik, galdera-zerrendan genero-ikuspegitik testua birpentsatzeko galderak proposatzea.

Komentaristak pasarte batzuk aukeratzen ditu irakurgaitik: barregarriak, interesgarriak, kezka sortu diotenak, hausnarketarako bidea ematen dutenak... Solasaldian, berak irakur ditzake pasarteok ahots gora, edo beste taldekideren bati eska diezaioke irakurtzeko. Gainerako partaideek iruzkinak egiten dituzte pasarte horien gainean, eta eztabaida sorrarazten da. **Birkokatze feminista**: genero-ikuspegitik azpimarragarriak diren pasarteak aukeratzea, baita bestelakoak ere, baina pasarteak aukeratzean genero-begiradari ere erreparatzea.

Laburbiltzaileak, hitzak dioenez, irakurgaiaren laburpen bat prestatzen du solasaldirako. Hark jasoko ditu ideia nagusiak, gogoan hartu beharreko gertaerak, pertsonaia garrantzitsuak, sinbolo azpimarragarriak eta abar. **Birkokatze feminista**: laburpen ariketa egiten duenak izan dezake genero-begirada garaturik ala ez, eta hain zuzen ere, taldeko kideen artean sorturiko laburpen horren genero-irakurketa egitea proposatuko du laburbiltzaileak.

Lotzailearen lana da irakurgaiko pasarte esanguratsuak hautatzea eta bizitza errealarekin loturak egitea. Lotura horiek askotarikoak izan daitezke: eskolarekikoak, lagun edo familiarekikoak, zinemarekikoak, musikarekikoak, beste liburu batzuekikoak... **Birkokatze feminista:** genero-espereientziekin loturak egiteari leku berezia eskainiko zaio.

Ilustratzaileak iruditan jartzen du irakurgaiko pasarteren bat (edo gehiago), marrazkiren bat eginez edo beste nonbaitetik irudiak ekarriz (Internetetik, aldizkarietatik...). Iruditik abiatuta ere eztabaida sortu ohi da. **Birkokatze feminista:** irudiak hautatzean edo marrazkiak hautatzean eztabaida feministak sorrarazteko aukerak gogoan izatea.

Hiztegi-aberasleak zenbait hitz biltzen ditu irakurgaitik: ezohikoak, ezezagunak, zailak, edo era batera edo bestera ikasleari arreta eman diotenak. Zerrendarekin batera, hitza aipatzen den orrialdea eta definizioa ere gordetzea komeni da. **Birkokatze feminista:** hiztegian arakatzeari hiztegiaren erabilera sexistak identifikatzeko saiakera egitea, baita genero-ñabardurak biltzen dituzten hiztegi hautuetan arreta jartzea ere.

Ibilbide-arakatzzaileak irakurgaiko gertaeren aldaketa nagusiak identifikatzen eta jasotzen ditu: leku-aldaketak, denbora-aldaketak, pertsonaienak... Eta, horren bidez, gertaeren jarraipena egiten laguntzen die partaideei. **Birkokatze feminista:** ibilbide-aldaketa horietan genero-kokapenek zer-nola jokatzen duten arakatzeari garrantzia emango zaio.

Ikertzaileak irakurgaiaren inguruko informazio gehigarria bilatzen du. Informazio historikoa, geografikoa, kulturala... Era informalean ematen da, dosi txikitik, eta irakurgaiarekiko atxikimendua sortzen laguntzen du. **Birkokatze feminista:** ikerketa-prozesu horretan irakurgaiaren, egilearen eta garaiaaren inguruko informazioa biltzean generoarekin eta feminismoarekin loturiko datuak biltzeko ariketa egitea, garaiko testuingurua berreraikitzean aldagai hori ere kontuan hartzeko.

Hizkera figuratiboaren bilatzaileak hizkera aztertu, eta formari erreparatzen dio: konparazioak, metaforak, pertsonifikazioak, hiperboleak, idiomatikotasuna... Hizkera figuratiboa non eta nola erabiltzen den aztertzen du, azken finean. **Birkokatze feminista:** hizkera figuratiboaren eta formaren ezaugarri horietan genero-imaginariorik eraiki den aztertzeari ere begiratuko zaio.